

ALEGAZIOAK, BEHIN BETIKO MUGIKORTASUN HORIZONTALAREN ZIRRIBORROARI

- Eskatzen dugu mugikortasun horizontaleko prozesu guztiak irekiak, gardenak eta kontrolatzeko modukoak izatea, plaza-kodea, dagokion unitatea eta izen-abizenak dituztela, eta jatorriko nahiz xedeko plazak zein diren eta zein sistema/prozesu bidez beteko diren uneoro ezagutu ahal izatea ere bai. Publizitatea sindikatuei eta interesa duen edonori eman behar zaio.
- Batzorde bat sortzea, prozesu osoa zuzentzeko, kontrolatzeko eta jarraipena egiteko. Batzorde hori parekidea izatea: Administrazioa eta sindikatuak, horietako bakoitzak Osakidetzan, oro har, duen ordezkaritzaren arabera.
- Prozesuan eskainiko diren plazak, baita eskainiko ez direnak ere, batzordearen baitan erabakiko dira.
- Egokitzapenak kategoria guztietarako izan behar dira, salbuespenik gabe, eta batzordean negoziatu beharrekoak. Egokitzapenen prozedura irizpidez arauturik egon behar da antolakunde guztietarako.
- Eskaini beharreko plazak izango dira deialdia baino 2 hilabete aurretik egokitu, amortizatu edo birmoldatu ez diren postu huts guztiak.
- Helmugako postuan hilabeteko epea emango zaio langileari, egokitzapen edo proba moduan, jatorriko atalean zituen eskubide lortuen kaltetan joan gabe, badaezpadan -epe hori gainditu gabe- jatorriko plazara itzuli behar den. (beraz, ez gaude ados **3 a) puntuarekin**)
- **5 d) puntua:** berariazko atalak edo unitateak ezabatzeko eskatzen dugu edo, gutxienez, arautegi honetan berariazkotzat jotako unitateak zein diren ezartzeko. Halaber, berariazko prestakuntza ezin zaie leporatu langile jabetu berriei, ez badira sortu berariazko postu funtzionalak; horregatik, helmugako unitateak prestatu beharko ditu langile heldu berriak.
- Helmugako postuko iraunkortasuna (**6 puntua**) ez dugu mugatu nahi, lehen

aipaturiko probaldia barne hartuko da eta, orobat, mugitzeko edozein aukera eskaintzen den guztietan parte hartzea izatea ere. Postuan jarraitzearen aldeko sustatzeari begira, iraunkortasun-plusa sortzeko eskatzen diogu Osakidetzari.

- Mugikortasuna **IREKIA** eta **ETENGABEA** izan behar da, edo gutxienez urtean 6 deialdi egingo direla ziurtatu **(7 puntua)**.
- **7 puntua:** deialdien maiztasuna dela-eta, irekiak eta etengabeak izango dira. Nolanahi ere, urtero mugikortasun horizontaleko 6 prozesu antolatuko direla ziurtatu behar da.
- **8.1 puntua:** postu bat sortzen den bakoitzean eskaini egingo da.
- **8.4 puntua:** baremazioaren emaitza batzordeak aztertuko du, eta batzordearen bilera egin baino lehen beharrezko dokumentazioa bidaliko zaie batzordekideei.
- **8.5 puntua:** 7 egutegi-egunak izan beharrean, argitaratze-egunaren biharamunetik egun baliodunak izatea.
- **8.7 puntua:** Esleitzen den helmugako postua uko ezinezkoa EZ izatea, zeren probaldia edo egokitzapen-aldia eskatzen dugu unitate berrirako.
- **11 puntua:** Aldi baterako mugikortasun horizontala berariaz arautzeko eskatzen diogu Osakidetzari. Horren bidez prozedura zehaztu behar da, eta zein kasutan gertatuko den. Ez da utzi behar antolakunde bakoitzaren esku prozesuan abiarazteko erabakia, arautegian eta bertan ezarritako irizpide objektiboetan oinarritu behar da.